

Lehiaketarako oinarriak

KERIK GABEKO GAZTEAK 2023-2024

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak argazki-lehiaketa bat antolatu du Kerik Gabeko Gazteak ekimenaren barruan.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten ikasgelek Kerik Gabeko Gazteak ekimenean izena eman behar dute web-orrian dagoen formularioaren bidez. Izena emateko azken eguna **2023ko abenduaren 22a da, egun hori barne**.

1. XEDEA

Lehiaketan **gelakideen artean sortutako argazki** edo **argazki-konposizio bat** aurkeztu behar da, hurrengo atalean aipatzen den gaiarekin lotuta.

2. GAIA

2023-2024 ikasturterako gaia “**Tabakorik gabe, gusturago gaude**” izango da.

3. PARTE-HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako **LHko 6. eta DBHko 1. eta 2.** mailako gelek parte har dezakete.

4. LANEN EZAUGARRIAK

Argazkiek edo **argazki-konposizioek** bigarren oinarrian azaldutako gaiari buruzkoak izan behar dute, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lana osatzen duten elementu guztiek jatorrizkoak izan behar dute, eta **debehatuta dago egileek landuak ez diren argazkiak, argazki-konposizioak eta beste elementu batzuk erabiltzea.**
- **Testu edo eslogan** motz bat ere sartu daiteke, gai hauei buruz: **bizi-ohitura osasungarriak edota ez erretzearen abantailak (ekonomiarako, osasunerako, harremanetarako etab.).**

- Testua sartzen bada, **mezu positiboak** erabiltzea gomendatzen da; gaixotasun, heriotza, ezintasun edo antzeko alderdiak islatzen ez dituzten lanak.
- **Ez** dira onartuko **marka komertzialen edota, benetako edo komikietako pertsonaien izenak nahiz marrazkiak** dituztenak.
- **Ez** dira onartuko **iraingarriak, bortitzak direnak edo mezu sexistak** erabiltzen dituztenak.
- Gela bakoitzak **gehienez 5 argazki edo argazki-konposizio** aurkez ditzake.
- Aurkeztutako lanak editatzeko edizio grafikorako edozein programa erabil daiteke. Bestalde, beharrezkoa da **JPG / JPEG formatuan** aurkeztea.

5. LANEN AURKEZPENA

Lanak **2024ko apirilaren 19ra arte, egun hori barne**, bidali beharko dira helbide honetara:

kerik-gabeko-gazteak@euskadi.eus

Posta elektronikoan **mezuaren gaian, ikastetxearen izena eta lurralde historikoa** adierazi behar da.

Argazki-artxibo bakoitzak ikastaro eta ikasgelako izenak eduki behar ditu.

6. LANEN BALIOESPENA

Epaimahaiak faktore hauek izango ditu kontuan:

- Lanak ekimenaren xedea eta gaia adieraztea.
- Edukiak eta baliabide espresibo eta artistikoak sormen handikoak izatea.
- Transmittzen den mezua originala izatea.
- Kritikoak izatea tabakoaren industriaren interesekin.
- Irudiak eta testuak gazteentzat egokiak izatea.

7. SARIAK

Ekimenean parte hartzen duten ikasle guztiek opari bana jasoko dute, Kerik Gabeko Gazteak programaren logoarekin.

Horrez gain, ikasgela irabazleen saria taldeko jarduera ludiko bat izango da.

Sari bat emango da heziketa-ziklo bakoitzeko eta lurralde historiko bakoitzeko.

Epaimahaiaren erabakia parte hartzen duten ikastetxeei jakinaraziko zaie.

Epaimahaiak eskubidea du sari guztiak ez emateko, bai eta lehiaketan inor ez saritzeko ere.

Sariak **2024ko maiatzaren 31n** banatuko dira, Kerik Gabeko Astearekin bat egiteko.

8. EGILE ESKUBIDEAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar Osasun Sailari lagatzea aurkeztutako lanak ustiatzeko eta edozein euskarritan edo komunikabidetan erreproduzitzeko eskubideak eta jabetza intelektualeko eskubidea, eskusibotasun osoz eta denbora-mugarik gabe.

9. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.